

# MAIATZA, LOREILA

Ilen izenak euskaldunon artean ugarriak dira. Bailada eta lurralde batekoak eta besteak alkarrekin euki izan dogun artuemon urriaren ezaugarri nabarmena edozelan be. Maiatza be ez da salbuespena, eta neuk dakidazala baditu iru izen beintzat: Orilla, loreila eta maiatza. Leenengo biak bertoko giroari begira, aldi orretako izadiaren iratzartzeari begira asmatuak. Bestea erromantzetik jaso eta bertokotua, eta ilen ezenak euskeraz esateko oiturea dabenen artean erabiliena be bai. Ilen izenak euskera batuan emoteko orduan be berau aukeratu eben: maiatza.

Maiatza esateak, aspaldi luze samarretik, Andra Mariari eskeinutako ila be esan gura deusku. Umerik geienak eta ez ain umeak be orixe aitatuko leukie berealakoan: Maiatza, Andra Mariaren ila. Eta gomutareen batzuk aitzatzeko eskatu ezkeru, euren gazte denporetan eleizetan egiten ziran eta gaur be egiten diran aparteko eleizkizuntxoak gogoratuko leukiguez. Gomuta bide orreetatik joatea be bidezkoa da. Bana beste lora bat aiatu gura neuke gaurkoan.

Bada Deustun beste lora gorri bat be. Maiatzaren 13an beteko dira larogeta emeretzki urte Felizisimo santuaren gorpuzkinak Bizkaiko lurraldera eldu ziranetik. Eta arrezkerokan or dago, ortik diardu bere fede testigantzearen gorria eta bitartekotasna aldarrikatzen. Zentbateraino eskari estuak eta zentbaterainoko malko beroak jaso ete ditu eta baita amaikatxo bedeinkapen opraro zabaldu be. Bere eungarren urtea zear

be lagun izango dogun ziurtasunez nago. Nork jakin Bizkaiko Eleiz-Batzar Nagusirako prestakizunetan, geure fedearen esperientziak argitara eroatera-koan be, alako laguntasun bikainen bat ez ete deuskun emongo.

Deustun dado, kapilla barrian ipinita, beragana jotzen dabenei gorputz-arime-tako preminetan laguntzeko prest.

Bere jaiak be maiatzean ospatzen da, Pazko aldiaren askenean, Espiritu Santuaren etorrera, Pentekoste biaramonan. Maiatzaren azkenetarantz tokatzen jaku aurten be. Astegun buruzuria aspaldiko urteetan, jai erdia leenago.

Felizisimo santuaren jarraitzaileak ondo ezagutzen dabe egun aundi ori. Astegun izan arren, eta astegun dogu, gernikarrak euren astelenak baino zintzoago eta zeatzago zaintzen daben eguna. Gauza gogorren bat jazo bearko jake egun orretan uts egiteko, Deustoko martiri aundiari bedeinkapenen bat eskatu, urtea zear lortu dituen mesedeakaitik eskerrak emotera joan barik gelditzeko. Badira urte luzeetan utsik egin barik joan jakozanak, eurak ezin dabenean ordezkoa bialtzen dakienak be bai.

Felizisimo santuaren jarraitzaileentzat maiatza birritan da loreila: Andra Maria gogoratzen daualako eta aspalditik, ia azken eun urte oneetan, Deustoko martiariaren jaiak maiatzean ospatzen dalako.